



*Bigarren Lehendakariordea eta Lan eta Enpleguko Sailburua
Vicelehendakari Segunda y Consejera de Trabajo y Empleo*

AGINDUA, 2023KO AZAROAREN 28 KOA, BIGARREN LEHENDAKARIORDE ETA LAN ETA ENPLEGU SAILBURUARENA, 2023KO AZAROAREN 30ERAKO DEITUTAKO GREBA OROKORREAN GIZARTEARI EMAN BEHAR ZAIZKION FUNTSEZKO ZERBITZUAK MANTENDUKO DIRELA BERMATZEN DUENA.

ELA, LAB, STEILAS, ESK, EHNE, ETXALDE eta CGT sindikatuek greba orokorra deitu dute 2023ko azaroaren 30erako, lanaldi osoan, "Euskal Autonomia Erkidegoaren eremu geografikoan kokatutako enpresa eta erakunde guztietako langile eta enplegatu publikoek egiten dituzten lan eta funtzionario jarduera guztiei eragingo diena, haien mendeko enpresa edo administrazioaren eremua edozein dela ere".

Grebarako deialdiaren helburua Lan Agintaritzari bidalitako jakinarazpenean jasota dago, eta hasitako espedientean jasota dago.

Grebaren eremua kontuan hartuta, eta Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, gobernu-agintaritzari dagokio beharrezko bermeak ezartzea Euskal Administrazio Publikoak eta gainerako organismo, instituzio, entitate edo enpresek komunitateari zerbitzu publikoetan edo Euskal Autonomia Erkidegoan premia aitortu eta atzeraezineko zerbitzuetan ematen dizkieten funtsezko zerbitzuei eutsiko zaiela ziurtatzeko, Lan Harremani buruzko martxoaren 4ko 17/1977 Errege Lege Dekretuaren 10. artikuluko bigarren paragrafoan xedatutakoaren arabera.

Espainiako Konstituzioaren 28.2 artikulua langileen greba-eskubidea onartzen du, langileek beren interesak defenda ditzaten, horixe baita egungo zuzenbide-estatu sozial eta demokratikoak oinarri dituen oinarrizko eskubideetako bat. Konstituzioak, beraz, berdin babesten ditu greba-eskubidea eta beste zenbait eskubide garrantzitsu, hala nola: bizia, osotasun fisikoa, osasuna, hezkuntza, joan-etorri askea, informazio-askatasuna eta benetako babes judiziala, besteak beste. Hain zuzen, Konstituzioak bete-betean babesten ditu, bai eskubide horiek guztiak, baita greba egiteko eskubidea ere.

Beraz, greba egiteko eskubidea herritarren gainerako oinarrizko eskubideen kontrakoa izan daitekeenez, eta Konstituzioaren 28. eta 37. artikuluetan xedatuta dagoenaren arabera, gizartearentzako ezinbesteko zerbitzuak mantentzen direla ziurtatzeko neurri egokiak hartu behar dira, auzitan dauden eskubideetako bat bera ere gauzatu gabe gera ez dadin.

Hala ere, aurreko premisa gorabehera, begien bistakoa da ezen, oinarrizko eskubideak mugatzen dituen edozein neurri konstituzionala izan dadin, proportzionaltasunaren printzipioa zorrotztasunez aplikatuz hartu behar dela, eta, horretarako, hiru baldintza bete behar ditu neurri horrek: neurria aplikatuz proposatutako helburua lortu ahal izatea, hots, «egokitasun-judizioa»



deritzona; egitatea aztertuta, ondorioztatu izana ez dagoela neurri apalagoren bat helburu hori eraginkortasun berarekin lortzeko, hau da, «beharrizanezko judizioa» deritzona; eta, azkenik, neurria edo konponbidea orekatua edo neurtua izatea, haren aplikazioaren ondorioz guztion intereserako onura edo abantaila gehiago eragiten direlako auzian dauden beste ondasun edo balioetarako eragiten diren kalteak baino, hau da, «proportzionaltasun-judizioa, zentzu hertsian». Gai horri buruz hainbat aldiz erabaki du Konstituzio Auzitegiak, honako epai hauen bitartez, besteak beste: 122/1990, 123/1990, 8/1992 eta 126/2003.

Erabaki horietatik ondorioztatu behar dugu gizartearentzako ezinbesteko zerbitzuak emango direla ziurtatzeak mugatu egiten duela grebarako eskubidea baliatzeko aukera, eta, ondorioz, nahitaezkoa dela interes desberdinak kontuan hartuta egoki orekatuz jokatzeko. Hori dela-eta, ziurtatzeak berme gisa balio behar du, eskubide kontrajarrien ezinbesteko koordinaziotik abiatuta; betiere ulertuta grebalarien eskubidea mugatu beharko dela –amore eman, Konstituzio Auzitegiaren hitzetan–, haien eskubideak grebaren bidez babesteak ezinbesteko zerbitzua jasotzeko eskubidearen komunitate/pertsona titularrari eragiten dion edo eragin liezaiokeen kaltea larriagoa bada grebalarien errebindikazio edo eskakizunek arrakastarik ez izateak eragingo lukeena baino. Horregatik, greba-deialdi honen aurrean, haren garapenak dituen ezaugarri zehatzak hartu beharko dira kontuan; eta, zehazki, grebaren denbora-eremua, egun bat, eta grebaren jarduera-esparrua, Euskal Autonomia Erkidegoan ezarritako enpresa eta erakunde guztietako lan- eta funtzionario-jarduera guztiak.

Adierazitakoa dela-eta, Konstituzioaren 15. eta 43.1., 19., 20., 27., 35. eta 24. artikuluetan, bizia, osotasun fisikoa eta morala, osasuna, hezkuntza, lurraldeko joan-etorri askea, lana, informazioa eta benetako babes judizialerako eskubidea babesten dira. Hain zuzen ere, botere publikoei dagokie eskubide horiek bermatzea, prebentzio-neurriak ezarri eta beharrezko zerbitzuak emango direla ziurtatuz. Greba egiteko eskubidea zilegi bada ere, eskubide horiek guztiak ezin daitezke babesik gabe geratu. Horren ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernuak gutxieneko zerbitzuak ezarri behar ditu, erkidegoan ezinbesteko zerbitzuak bermatzeko, ondoren adierazten diren eta agindu honetan zehaztuta geratzen diren sektoreetan.

OSASUN-SEKTOREA

Osasuna babestea oinarrizko eskubideetako bat da zuzenbide-estatu guztietan. Egun, herritarrek gutxieneko prestazio sanitarioak eskatzeko duten eskubide gisa ulertzen da eskubide hori, aintzat hartuz giza duintasuna eta estatu bakoitzaren gizartearen eta ekonomiaren garapen-maila. Hala, Giza Eskubideen Adierazpenak (NBE, 1948) 25.1 artikuluan dioenez, «pertsona orok du osasuna eta ongizatea edukitzeko eskubidea, eta batez ere, mediku sorospena eta gizarte-zerbitzuak»; ildo berekoak dira Europako Kontseiluaren Europako Gutun Sozialaren 11. artikulua (Turin, 1961) eta Ekonomia-, Gizarte- eta Kultura-eskubideen Nazioarteko Itunaren 12. artikulua (NBE, 1966).



Hortaz, greba-eskubidearen eta Konstituzioaren 15. eta 43.1. artikuluetan jasotako beste zenbait eskubideren arteko gatazkan (bizitzeko eskubidea, osotasun fisiko eta moralerako eskubidea eta osasuna babestekoa), ezinbesteko baldintza da azken horiek bermatu beharra. Osasun-zerbitzu publiko nahiz pribatuek pertsonen osasuna eta bizia zaindu behar dute.

Horren ondorioz, eta greba-deialdiari dagokionez, ez da argudiorik behar edo argudio gutxi behar da larrialdiko zerbitzuak bete-betean mantentzea behar-beharrezkoa dela adierazteko; izan ere, zerbitzu horietan berehala esku hartu ezean, gerta daiteke norbaiten bizia arrisku larrian egotea. Orobat, «ospitaleratutako pazientea behar bezala artatu ahal izateko», ospitaleratutako paziente bakoitzari behar bezala eman behar zaizkio botikak, higiene-egoera egokia bermatu behar zaio, eta jaten eman behar zaio, otorduak errespetatuz; esan nahi baita, beharrezko asistentzia eman behar zaio, bere osotasun fisiko eta morala honda ez dadin.

Osasun-arloko lehen mailako arretari dagokionez, arazorik gabe hartzen da oinarrizko zerbitzutzat, ospitalez kanpoko larrialdiei estaldura ematen dien heinean batez ere. Jarduera-sektore honetan gutxieneko zerbitzuak ezartzeari dagokionez, esan behar da, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salak emandako epai batzuen ondotik: 2012ko urriaren 3koa, deuseztat jo zituena 2012ko martxoaren 29an 24 orduko greba orokorra egiteko 2012ko martxoaren 23ko Aginduaren bidez ezarri ziren lehen mailako arretarako gutxieneko zerbitzuak; eta 2013ko martxoaren 5koa, deuseztat jo zituena 2012ko azaroaren 14an eta 2013ko maiatzaren 30ean 24 orduko greba orokorrak egiteko 2012ko irailaren 19ko Aginduaren bidez ezarri ziren lehen mailako arretarako gutxieneko zerbitzuak; eta 2016ko ekainaren 14ko greba-deialdia, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko langileentzat egina, txanda guztietarako bi orduko ordu-tarteetan –ez dago jasota haien aurka egin zenik, ez administrazio-bidetik, ez auzibidetik–, gobernu-agintariak erabaki zuten larunbatetako lanaldiari dagokiona –eta larunbatetako ohiko ordutegia– ezarriko zutela lehen mailako arretarako gutxieneko zerbitzu gisa, greba-egunerako aurreikusita zegoen langile-kopuruarekin; horrenbestez, eutsi egin zaie zerbitzu horiei. 2018ko martxoaren 8ko grebaren aurrean, zerbitzu berberak ezarri ziren. Azkeneko horretan, ordea, errekurrituak izan ziren oinarrizko eskubideen babes juridikzionalaren prozedura bereziaren bitartez; hala ere, Salak Zuzenbidearekin bat zetozela ebatzi zuen, interpretazio-lana egin ondoren. Horrexegatik, azkeneko greba orokorrari begira -2019ko martxoak 8- zerbitzuak mantendu baziren ere, idazketa zuzenagoa erabili zen. Orduko zerbitzuak arazorik gabe gauzatu zirenez, eutsi egin zaie deialdi honetan.

Larrialdi-zerbitzuei eta etengabeko arretaguneei dagokienez, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salaren 2012ko urriaren 3ko Epaiak ezetsi zuen errekurtsogileak larrialdi-zerbitzuetarako eta etengabeko arretaguneetarako ezarritako gutxieneko zerbitzuen inguruan zuen asmoa, hau da, zerbitzu horiek gehiegizkotzat jotzea (%100eko zerbitzuak ezarri ziren), arrazoi hau aipatuta: «larrialdi-zerbitzuen izaerak berak eta etengabeko arretaguneei helburuak justifikatu egiten dute, aztergai dugun eremuan



(osasunaren eremuan) eta osotasun fisikoa eta bizitzeko eskubidea ahaztu gabe, errekurtsua jaso duen aginduan bildutako gutxieneko zerbitzuak ezartzea»; horrenbestez, eutsi egin zaie zerbitzu horiei.

Osasun-sektore horretan bertan, kontuan hartu behar da 2011ko uztailen funtsezko erreforma bat egin zela erabiltzaileen arretan: CALL CENTER izeneko sistema. Sistema horrek, osasun-arreta bere horretan ematen ez badu ere, zerbitzu hori benetan ematea ahalbidetzen du, erabiltzaileak arreta horrekin duen lehen harremana baita; zerbitzu hori bereziki nabarmena da osasun-aholkuari dagokionez. Izan ere, telefono-zerbitzua da, eta lehen mailako arretako erizaintzako langileek ematen dute. Bertan, erabiltzaileen premiak balioesten dituzte eta, haien egoeraren arabera, dagokion zerbitzura bideratu. Zehazki, larrialdi-zerbitzura (bizilekura ambulanzia bat bidalita) edo etengabeko arretagunera (bizilekurako abisua zuzenean kudeatuta) bidera daitezke. Garbi dago, beraz, Call Center izeneko osasun-larrialdietara bidera daitezkeen deien iragazkia dela, osasun-aholkuan gerta litekeen kolapsoa saihesten duela, eta osasun-lehentasuna duten deiak eta dei arruntak bereizten dituela. Horrez gain, beste zerbitzu batzuk egiten ditu, hala nola aurrez ordua eskatzeko deiak hartzea, IVR telefono-sistema bidez operadore birtual gisa jardutea, zenbaki generikoetatik aurrez ordua eskatzeko iristen diren deiak hartzea, zerbitzuei buruzko informazio orokorra ematea, etab. Azkenik, Autonomia Erkidegoko zentro guztietako O-Sarean barruko zerbitzu eta aplikazioen funtzionamenduari lotutako barne-gorabehera teknikoak kudeatzen ditu. Sistemaren funtzionamendu teknikoaren berme horrek eta osasun-aholkuak bultzatu dute gobernu-agintaritzak hau zerbitzu hori bermatu beharreko ezinbesteko zerbitzutzat hartzea, bizitzeko eta osasunerako eskubideari lotuta dagoen heinean.

2014. urtean, Call Center Korporatibo zentralizatua bi sistemarekin ordeztu da:

a) Osasun-erakunde batzuetan, telefono-jauziko dei-sistema bat ezarri da anbulatorioen artean, eta ez da beharrezkoa izango gutxieneko zerbitzu espezifikorik finkatzea sistema horretan.

b) Arabako ESiko, Donostialdeko ESiko, Ezkerraldea-Enkarterri-Gurutzetako ESiko, Bilbo-Basurtuko ESiko, Uribeko ESiko, Debabarreneko ESiko eta Bidasoako ESiko, Tolosaldeko ESiko, Barakaldo-Sestaoko ESiko eta Barrualde Galdakaoko ESiko erakunde sanitarioetan, call center-sistema bat ezarri da, call center korporatibo zaharraren funtzio berberak betetzeko, baina erakunde horietako bakoitzera mugatuta.

Bigarren call center mota honetan gutxieneko zerbitzuak ezartzeko beharra honako hauek arrazoitzen dute: batetik, lehengo call center korporatiboaren funtzio berak betetzen ditu, erakunde sanitario bakoitzera mugatuta bada ere; eta, bestetik, telefono bidezko arreta oso garrantzitsua da; izan ere, arreta hori funtsezkoa da osasun-antolamenduan, herritarrek osasun-sistemarekin harremanetan jartzeko gehien erabiltzen dituzten bideetako bat baita. Sistema horren bidez, gainera, telefonoz ordua aurrez eskatzeko eskariaren banaketa orekatuagoa



lortzen da eguneko orduetan. Horri esker, zerbitzuek ez dute gainezka egiten lehen orduetan, eta telefonoz bideratzen ez diren pertsonak ez dute nahitaz osasun-zentrora joan behar.

Ezarri beharreko gutxieneko zerbitzu zehatzei dagokienez, kontuan hartu behar da aurreko Call Center Korporatiboan urteko egun guztietan egiten zela lan, nahiz eta astelehenetik ostiralera bitarte jarduteko plantilla bat eta larunbaterako beste bat egon. Egungo Call Center zerbitzua antolatuta dagoen moduan, berriz, ez da zerbitzurik ematen larunbatetan. Beraz, gutxieneko zerbitzuak larunbatetako zerbitzuetara mugatzea zerbitzurik ez ezartzea izango litzateke, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salak 2013ko maiatzaren 29ko Autoan erabaki eta 2013ko irailaren 25eko Epaiak berretsi zuenez. Hori guztia dela-eta, Osakidetza Zuzendaritzak emandako informazioaren arabera, egungo plantillaren % 50 behar da zerbitzu hori betetzeko, eta, hortaz, lan horiek egin ohi dituzten langileen ehuneko hori ezartzen da gutxieneko zerbitzu gisa.

Zirkunstantzia horietan guztietan oinarrituta, deialdi honen aurre-aurreko greba-deialdietan –aipatutako zerbitzuari eragiten ziotenetan–, 2014ko azaroaren 4ko Agindua, 2015eko apirilaren 21eko Agindua, 2016ko ekainaren 10eko Agindua eta 2018ko otsailaren 27koa, 2019ko otsailaren 28koa eta 2020ko urtarrilaren 20koa–oraingoa bezalako deialdian– eman ziren eta, haien bidez, ehuneko hori ezarri zen gutxieneko zerbitzu gisa. Ildo beretik, berrikiago eman dira 2023ko maiatzaren 12ko eta 17ko aginduak, OSAKIDETZAn deitutako greba baterako.

Bestalde, garraio sanitarioko enpresek egiten dituzten zerbitzuei dagokienez, zerbitzu horiek erabat gelditzen badira, osasun-arreta behar duten herritar asko ezin izango lirateke lekualdatu, eta horrek lehendik aipatu dugun osasunerako edo bizitzeko eskubideari erasotzen dio; izan ere, gaixorik dauden pertsonen lekualdaketa behar bezain azkar ez bada jarduten, pertsona horien heriotza ere gerta daiteke, beharrezko osasun-arreta ez jasotzeagatik. Agindu honetan, kontuan hartu da, batetik, AVINCIS AVIATION TECHNICS SAU enpresan gaixo dauden eta istripua izan duten pertsonak helikopteroz OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZURA garraiatzeko zerbitzua ematen duen grebarako 2023ko irailaren 20ko Aginduaren edukia, eta, bestetik, gaixo dauden eta istripua izan duten pertsonen garraio-zerbitzuaren sektorean greba egiteko deialdia egin zuten 2023ko azaroaren 15eko Aginduaren edukia.

LARRIALDIEN ETA SEGURTASUNAREN SEKTOREA

Gizarteak larrialdiei aurre egiteko eta bide-segurtasuneko zerbitzuetarako duen eskubidea (SOS DEIAK, larrialdiei aurre egiteko eta meteorologia zerbitzuak, suhiltzaileak, larrialdietako igorleak eta komunikazioak, errepideen mantentzea –neguko bide-plana barne–, urtegi, ibai eta mendietako larrialdi-zerbitzua, Babes Zibila, Euskadiko Trafikoa Kudeatzeko Zentroa eta abar) eta Segurtasun Sailaren (+) komunikazio- eta informatika-arloa jendearentzako ezinbestekotzat hartzen dira, larrialdia ezbehar bihur ez dadin egiten baitira zerbitzu horiek. Konstituzioaren 15. eta 43.1 artikuluetan, bizia, osotasun fisiko eta morala eta osasuna babesten dira. Hain zuzen ere, botere publikoei dagokie eskubide horiek bermatzea, prebentzio-neurriak ezarriz eta



beharrezko zerbitzuak emango direla ziurtatuz. Greba egiteko eskubidea zilegi bada ere, eskubide horiek guztiak ezin daitezke babesik gabe geratu. Beraz, gizartearentzako ezinbestekotzat jo behar da sektore hori, eta, hortaz, zerbitzu hori behar-beharrezko langileekin ematea ezinbestekotzat eta atzeratu ezintzat jo behar da. Horretarako, urtaro honetako jaiegun batean bezainbeste langile arituko dira lanean, Segurtasun Sailaren komunikazio- eta Informatika-arloan izan ezik, non nahikotzat jo baita teknikari bakarra aritzea.

SOS DEIAK zerbitzuak aipamen berezia merezi du. Kasu honetan, ezinbesteko zerbitzu hori emateko gutxieneko zerbitzu egokiak ezartzeko, kontuan hartu behar da zerbitzu horietako telefono-arretaren ohiko tamaina pentsatuta dagoela normaltasun-egoeran eguneko deikopuruari erantzuteko. Beraz, zerbitzua emateko gutxieneko edo oinarrizko pertsona-kopurua hartzen da kontuan, larrialdi-egoerak ezin direlako ez aurreikusi ez planifikatu. Beraz, zerbitzua emateko gutxieneko edo oinarrizko pertsona-kopuruari erreparatzen zaio, larrialdi-egoerak aurreikusi ezinak direlako eta ezin direlako planifikatu.

Hori guztia dela-eta, zerbitzua mantentzeko eskatu beharreko gutxieneko zerbitzuak ohiko egun baterako planifikatutako kopurura iritsi behar dira. Izan ere, kopuru txikiagoa ezartzen bada, gerta daiteke herritar baten deia ez jasotzea lineak edo operadoreak gainezka daudelako, eta, ondorioz, gerta daiteke giza biziak (pertsona batena, zenbaitena edo askorena) salbatzeko baliabideak atzeratzea edo ez mugiaraztea. Ezinezkoa da zain dauden deiak zerrendatzea, eta alertarik ez galtzea lortu behar da; izan ere, alertaren bat galtzen bada, larrialdi-zerbitzuek ez dute izango esku hartzeko behar duten informaziorik. Horrez gain, baliteke beharrezkoa izatea, zerbitzuaren ohiko kopurua egoteaz gain, unean-uneko laguntza ere eskatzea, larrialdi-plan bat aktibatu delako edota greba-egunean larrialdi-kasu larriak gertatu direlako. Beraz, beharrezkoa eta ezinbestekoa da greba-egunean ohiko egun baterako aurreikusitako langileen %100 estaltzea, bai operadoreen lanpostuetan, bai gainbegiraleenetan; izan ere, gainbegiraleek, koordinazio-lana egiteaz gain, telefono bidezko arreta ere ematen dute, eta lan-txandatik hurrengo errelepora transferentzia egiteko arduradunak dira, lehenago ere azaldu den bezala. Baliteke zerbitzuaren tamaina horri laguntzaren bat gehitu behar izatea, gerora sortutako larrialdi-egoera larrietan.

Euskal Autonomia Erkidegoko Larrialdiak Koordinatzeko Zentroan eta contact center sektorean deitutako azken grebetan, 2017ko martxoaren 3ko Agindua eta 2017ko martxoaren 15eko Agindua eman ziren, hurrenez hurren, eta egun arrunt baterako aurreikusitako langileen % 100 ezarri ziren gutxieneko zerbitzu gisa. Era berean, 2020ko urtarrilaren 30erako greba orokorrerako deialdia egin zen, sektore honetan gaur egungoarekin pareka daitekeena.

GIZARTE-ZERBITZUEN SEKTOREA

Gizarte-zerbitzuak, bestalde, babes-neurrien multzo gisa daude eratuta, mendekotasuna duten edo kalteberatasun-egoeran dauden pertsonen bizitzeko gutxienezko baldintza duinak eta kalitatezkoak bermatzeko. Konstituzioaren 15. eta 43.1 artikuluetan, bizia, osotasun fisikoa eta



morala eta osasuna babesten dira. Hain zuzen ere, botere publikoei dagokie eskubide horiek bermatzea, prebentzio-neurriak ezarriz eta beharrezko zerbitzuak emango direla ziurtatuz. Greba egiteko eskubidea zilegi bada ere, eskubide horiek guztiak ezin daitezke babesik gabe geratu. 10.1 artikulua xedatzen duenez, gizabanakoaren duintasuna ordena politikoaren eta gizarte-bakearen oinarri da. Halaber, Konstituzioaren 49. artikulua xedatzen duenez, botere publikoek «aurreneurri- tratamendu-, bizkortze- eta gizarteratze-politika egingo dute urritu fisiko eta psikikoentzat eta zentzumen-urrituentzat; horiei, eurek behar duten arreta berezia emango zaie, eta bereziki babestuko dira, titulu honek herritar guztiei ematen dizkien eskubideak egikaritu ahal izateko».

Ukaezina da egoitza-arretako zerbitzuetan (tutoretzapeko apartamentuak, etxebizitza komunitarioak eta egoitzak), eguneko zentroetan (ezintasun fisiko eta psikikoak dituzten pertsonak artatuz), etxeko laguntza-zerbitzuetan eta adingabeen egoitza eta etxebizitza komunitarioetan eta esku-hartze sozialeko zentroetan lan egiten dutenek egiten duten jarduerak garrantzi sozial handia duela. Zerbitzu hori jasotzen duten pertsonak nekez balia daitezkeen kolektiboa osatzen dute, beren egoera subjektiboa eta pertsonala kontuan hartuta. Beraz, horrelako grebak, 2023ko urriaren 25ean eta abenduaren 19an sektore honetan gutxienezko zerbitzurik finkatu gabe, berekin lortu nahi den helburua baino kalte handiagoak eragin ditzake, egoera horietan pertsonen osasuna eta segurtasuna arriskuan jar baitaitezke.

Hala eta guztiz ere, kontuan hartu behar da zerbitzu horien prestazioan garatzen diren egiteko guztiak ez direla ezinbestekoak. Ezinbesteko egitekotzat ulertu beharko dira «zuzeneko arretako zerbitzuak»; zerbitzu horien xedea da arreta jasotzen dutenen norberaren zainketa oinarrizkoak mantenduko direla bermatzea. Zuzeneko arretako zerbitzuen barruan, arreta sanitarioaz eta geriatikoaz gain, beste hauek ere baditugu: otorduen prestaketa eta otordu-zerbitzua, hidratazioak, botika-hornidurak, siesta terapeutikoak eta, mendekotasun-egoeraren arabera, higie pertsonala eta altxatzeko, garbitzeko, jantzeko edo jateko laguntza. Era berean, eremu biopsikosozialaren mantentze eta kontserbaziotzat hartzen dena ere bermatu beharko da.

Zentro horien ohiko funtzionamenduak intentsitate-maila desberdinak ditu egunean zehar, pertsonen jarduera funtzionalaren eta ziklo biologikoaren arabera, eta jarduera handiagoa dago goizeko lehenengo orduan (jaike, higie pertsonala, jantzi, medikazioa, gosaria eta abar), eguerdiko otorduan eta eguneko azken orduetan (afaria, oheratu, pixoihala aldatu, medikazioa eta abar); beraz, ordu horietan arreta pertsonalizatu handiagoa behar da zaintzaileen aldetik. Horren ondorioz, ordu horietan, beharrezkoa da langile horietako gehiago egotea, egoitzetako bezeroen beharrezko erantzuteko jarduera txikiagoa den gainerako orduetarako ezarritako oinarrizko langileei laguntzeko.

Premisa horietatik abiatuta, greba-deialdi honen aurrean, honako hau ezarri behar da: zuzeneko arreta ematen duten gerokultoreen edo antzekoen % 50ek zerbitzuak ematen dituztela, otorduetako ohiko ordutegian izan ezik, eta goizeko 8: 00etatik 10: 30era eta 20:



00etatik 22: 00etara. Horietan, ehuneko hori % 10 igoko da, eta erabiltzaileen profila, % 70 baino gehiago, II. edo III. mailako mendetasun-maila aitortua duten egoitza eta etxebizitza komunitarioetan soilik, gerokultoreen edo antzekoen profila % 70 izango da. Kuantifikazio hori 2018ko martxoaren 8ko greba orokorraren harira Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak 218/2018 prozeduran 2018ko uztailaren 18an emandako epaiaren arabera egiten da. Era berean, gaueko txandan, zuzeneko arretako langileen % 100ek eman beharko du zerbitzua, eta egin beharreko zereginak "zuzeneko arreta" gisa egituratutakoak baino ez dira izango.

Adierazi den bezala, zuzeneko arretaren funtsezkotasun-irizpide bera aplikatu behar zaie eguneko zentroei ere, oro har egoitzetan baino langile gutxiago baitituzte. Horregatik, zuzeneko arretako zerbitzuak zuzeneko arreta hori ematen duten langileen % 50ekin mantendu beharko dira, gosariaren eta bazkariaren ohiko ordutegian izan ezik, orduan ehuneko hori % 10 igoko baita.

Zentro horietan, gainera, ezinbesteko zerbitzutzat hartu behar da mendetasun-egoeran dauden erabiltzaileen garraioa, haietara egiten dituzten joan-etorriak (eta aurreko paragrafoan aipatutako funtsezko zerbitzuetara iristeko) ezin badira beste garraio bide alternatibo batzuetan egin, haien mugikortasun-gaitasunetara behar bezala egokituta egon behar baitute. Bestela, pertsona horiei ez zaizkie arreta eta zerbitzu asistentzialak, terapeutikoak eta sanitarioak emango, pertsona horien «eguneroko bizitzako oinarrizko funtzioak» direlakoak prebenitzeko, mantentzeko eta hobetzeko (Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen 24. artikulua).

Gai horri buruz, gobernu-agintaritza honek ehuneko jakin bat zehaztu gabe ezarri izan ditu gutxieneko zerbitzuak, nahikotzat jo baitu zerbitzuaren «helburuak» zehaztea, adierazi den moduan. Hala ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2013ko irailaren 25eko Epaiak, zeina 2013ko maiatzaren 30eko greba orokorrerako ezarritako gutxieneko zerbitzuei buruzko aginduarekin lotuta eman baitzen, zerbitzua ezinbestekoa zela onartu bazuen ere, ulertu zuen xedapen hori arrazoitu beharra zegoela «zerbitzuak eman behar dituzten enplegatuen greba-eskubidea mugatzearen proportzionaltasunaren ikuspuntutik», eta, beraz, garraio-zerbitzu horiek eman behar zituzten langileen ehunekoa adierazi behar zela.

Izan ere, erabiltzaileen desgaitasunengatik zerbitzua gidari batek eta begirale edo laguntzaile batek ematea behar-beharrezkoa den neurrian, ezin da %100etik beherako ehunekorik eman. Bestalde, kasu horietan ezin da, ezta ere, egin beharreko garraioaren murrizketa portzentalik ezarri, zerbitzua eman arren zerbitzu hori txikiagoa izateko moduan, langileek egin beharreko lanaldia ohi baino gehiago luzatzea ekarriko bailuke horrek. Beraz, egoera honetan, garraio bereziaren bidez ematen den ezinbesteko zerbitzua bermatzeko, litekeena da langile horietako batzuei, zerbitzua eman dezaketen bakarrak direnez, dagokien greba-eskubidea guztiz murriztea, erabiltzaileen mugikortasunerako gaitasunei behar bezala egokituta dauden beste garraio bide batzuk ez baldin badaude behintzat.



Beste alde batetik, Etxeko Laguntza Zerbitzua gizarte-zerbitzu bat da, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 22.1.2. artikuluan jasotzen dena, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren katalogoan sartuta dauden zerbitzuen eta prestazio ekonomikoen artean. Barne hartzen ditu laguntza pertsonaleko, orientazioko eta egunerokotasuneko oinarrizko jarduerak zuzenean egiteko arreta-zerbitzuak, hala nola ohetik jaikitzea eta oheratzea, janztea, etxea garbitzea, arropa garbitu eta lisatzea, ontziteria garbitzea, eguneroko higiene pertsonala, elikadura, medikazioa kontrolatzea, mugitzea eta joan-etorriak egitea, familiaren antolaketan laguntzea, elikagaiak erostea, janaria prestatzea. Horiez gain, beste jarduera osagarri eta beharrezko batzuk ere egiten dira, zerbitzuaren xedeak lortzeko beharrezkoak direnak, bai eta etxetik eguneko zentroetara edo osasun-zentroetara joaten lagundu ere. Zerbitzu horien onuradun dira, maila ezberdinetan, bakarrik dauden edadetuak edo mendekotasun-egoeran daudenak, eta, beraz, babes berezia jaso behar dute, Konstituzioaren 15. eta 43.1 artikuluetan jasotako bizirako, osotasun fisiko eta moralerako eta osasunerako eskubideak bermatze aldera. Hain zuzen ere, botere publikoei dagokie eskubide horiek bermatzea, prebentzio-neurriak ezarriz eta beharrezko zerbitzuak emango direla ziurtatuz. Greba egiteko eskubidea zilegi bada ere, eskubide horiek guztiak ezin daitezke babesik gabe geratu.

Adingabeen egoitzei, etxebizitza komunitarioei eta esku-hartze sozialeko zentroeiei dagokienez, egoiliarren bizia, osasuna, hezkuntza, segurtasuna eta osotasuna bermatu beharko dira, eta, horrenbestez, eskubide konstituzional horiek bermatzen duten gutxieneko zerbitzuak mantenduko dira greban. Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2013ko maiatzaren 29ko autoak ordeztu egin zituen bakarrik dauden adingabeen zentroetarako eta esku-hartze sozialeko zentroetarako lanegun bateko gutxieneko zerbitzuak –2013ko maiatzaren 27ko Aginduaren bidez jarriak–, eta, horien ordeztu, jaiegun batekoak ezarri zituen. Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2013ko irailaren 25eko 480/2013 epaiaren bidez, deuseztat jo ziren 2013ko maiatzaren 27ko Aginduan lagunduta dauden adingabeentzako egoitzetarako ezarri ziren gutxieneko zerbitzuak –lanegun bateko gutxieneko zerbitzuak ezarri ziren–, eta bidezkotzat jo zen gutxieneko zerbitzuak asteburu batekoak izan behar zirela.

Era berean, gizarte-zerbitzuen telelaguntza oinarrizko zerbitzua da, eta etxean arreta-zerbitzuak emateko sistema global baten barruan dago. Telelaguntza horren helburua da telelaguntza-zerbitzuak bertan jarraitzea eta erabiltzailea familia- eta gizarte-ingurunean integratzea, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologietan (IKT) oinarritutako sistemak erabiliz eta bizitza independenterako konponbideak 3-12 bilatuz. Horretarako, zaintza eta autonomia pertsonalarekin lotutako alderdiak sustatuko dira, telelaguntza-zerbitzu publikoari buruzko ekainaren 28ko 144/2011 Dekretuaren azalpen-zatian adierazten den bezala. Dekretu horretan adierazten denez, aldi berean, lasaitasuna eta segurtasuna sortzen du erabiltzaileentzat



eta haien senideentzat, batez ere denbora gehiena bakarrik igarotzen dutenentzat edo ohiko arrisku-egoeretan egon daitezkeenentzat. Duela gutxi, 2022ko irailaren 30eko Agindua eman da, Euskadiko telelaguntza-zerbitzuei eragiten zien greba baterako. Grebaren edukia kontuan hartu da.

HEZKUNTZA-SEKTOREA

Hezkuntzaren arloari dagokionez, premisa gisa hartu behar da hezkuntzarako eskubidea Konstituzioaren 27. artikuluan onartutako oinarritzko eskubidea dela, zentzu zabalean hartuta, unibertsitate-hezkuntza barne, Auzitegi Konstituzionalak 26/1987, FJ 4., a) epaian adierazi zuen bezala: «hezkuntzarako oinarritzko eskubidearen tratamendua, unibertsitate-arloan, ez da geratzen ezinbesteko zerbitzuen zehaztaperetik kanpo ikastetxe horietan lan egiten duten langileak greba-eskubidez baliatzen diren kasuan. Horren ondorioz, ezin da baieztatu ezinbesteko zerbitzu horiek zehazteak Espainiako Konstituzioaren 28. artikulua (Grebarako eskubideari buruzkoa) urratzen duenik».

Aipamen berezia egin behar da hezkuntza bereziko zentzoei buruz. Izan ere, hezkuntza-zentroak diren arren, bereziki babesgabea eta kaltebera den kolektibo bati zuzenduta daude, eta, horregatik, hezkuntza-zentro horiek asko hurbiltzen dira gizarte-zerbitzu izatera; ondorioz, esparru guztietan tratamendu berezia eman behar zaie.

Bermatu beharreko ezinbesteko zerbitzuak zeintzuk diren zehazteko, eta, beraz, hezkuntza-eremuan gutxieneko zerbitzuak ezartzeko, kontuan hartu behar da greba-deialdiak hezkuntza-zentro guztietan eta hezkuntza-arloko funtzioak eta eskumenak garatzen dituzten langile guztiengan –funtzionarioak nahiz lan-kontratudunak– duela eragina.

Eginiko greba-deialdiaren eremua kontuan izanik, hezkuntza-zerbitzuaren esparruaren barruan, sektore publikoko enplegatu publiko eta lan-kontratudun langile ez publiko guztiak barne hartzen ditu horrek, hezkuntza-egitekoak eta -eskumenak garatzen baldin badituzte, baita besteren konturako langileak eta autonomoak ere, hezkuntzari lotutako egitekoak eta lanak egiten baldin badituzte. Zehazkiago, eragin-esparrua hau izango litzateke: Unibertsitateaz kanpoko hezkuntza arautua, ikastetxe publikoak zein itunpekoak eta pribatuak; Haurreskolak Partzuergoa eta udal-titulartasuneko haurtzaindegiak; unibertsitateak, MUSIKENE Goi Mailako Musika Ikastegia eta udal-titulartasuneko musika-eskolak eta Hizkuntza Eskola Ofizialak.

Egun osoko lanuztea dela kontuan izanda ere, nahitaezkoa eta beharrezkoa da zentroak irekitzea greba egiten ez duten langileek lanerako eskubidea —Konstituzioaren 35. artikuluan onartua— gauzatu ahal izan dezaten. Horregatik, gobernu-agintaritzak gutxieneko zerbitzutzat jotzen du ikastetxeetarako eta lotutako eraikinetarako sarrera-kontrola bermatzea, gutxienez grebarako eskubidea ez baliatzea erabakitzen duten langileen sarrera bermatze aldera, baita ikasleen sarrera ere, hain zuzen ere zentroak irekiko ez balira, lanerako eta hezkuntzarako eskubide korrelatiboa guztiz eta bidegabeki eragotziko litzatekeelako.



Haurreskolak Partzuergoa osatzen duten zentroak irekitzeko beharrari dagokionez, grebarekin bat egiten ez duten langileen lanerako eskubidea babesteaz gain, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2009ko urriaren 28ko epaiak adierazi zuen bezala, funtsezko zerbitzua da, bai hezkuntzarako oinarritzko eskubidearen ikuspegitik (Konstituzioaren 27. artikuluan aitortua), bai lan- eta familia-bizitza uztartzeari eragiten dion ikuspegitik, lanerako eskubideari lotuta baitago, gizarte-harremanen izaera ebolutiboaren aurrean gaudelako.

Unibertsitateaz kanpoko ikastetxeak irekitzeko beharrizan bakarra ez da «ikastetxea irekitzea» jarduera material gisa; aitzitik, irakaskuntza-egitekoaren edo -jardueraren ezinbesteko «funtzionamendu-errutinak» gauzatu behar dira (gutxieneko zerbitzuen izaera murriztaileagatik eskatzen direnak), ikastetxe horietan instalazioak edo materialak zaintzeko eta ikasleak zaintzeko egiten direnen artean; izan ere, ikastetxe haietara ikasle adingabeak joaten direnez –adingabeei ezin zaie helduei eskatzen zaien heldutasun-maila bera eskatu haien jardunean, eta horren ondorioz, ikastetxearen erantzukizuna ezin da guztiz baztertu (Auzitegi Gorenaren 2002ko apirilaren 14ko Epaia)–, berebiziko arreta eskatzen da ekiditeko modukoak diren arriskuak ezabatzeko edo murrizteko, instalazioak behar bezala edukiz eta mantenduz, baita zaintzeko eta kontrolatzeko lanak eginez ere–irakaskuntza- edo prestakuntza-jarduerak garatzen diren egoitza batean adingabeak edo ezinduak zaintzeko ardurak hartzen badira [...] arreta berezia jarri behar da haiek nozitu lezaketen edozein lesio edo kalte saihesteko. Valentziako Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren urriaren 23ko Epaia, 1526/2009 zenbakikoa (Administrazioarekiko Auziak, 1. atala)– . Horren ondorioz, ikastetxe horietan, gutxieneko zerbitzu gehigarri gisa, aginte- eta/edo zuzendaritza-ahalmena duten pertsonak egotea ezarri beharko da, prebentzio eta segurtasunerako arreta ikastetxe horietara joaten diren adingabeentzat ikuspuntu objektibo batetik arriskutsuak izan litezkeen guneetara zuzentzeko ardura beren gain har dezaten.

Era berean, Hezkuntza Saileko unibertsitatez kanpoko hezkuntza publikoko ikastetxeetan eta Haurreskolak Partzuergoko haur-eskoletan greba egiteko 2022ko azaroaren 29ko gutxieneko zerbitzuak arautzen dituen Agindu berria ere errekurritu zen Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian. Agindu horren bidez, apirilaren 20ko 204/2023 Epaian (1015/2022 Oinarritzko Eskubideak Babesteko Administrazioarekiko Auzi Errekurtsoa), ezetsi egin zen errekurtsoa, eta berretsi egin zen aipatutako agindua, honako hau arrazoituz: "errekurritutako aginduaren ebazpen-zatiaren lehenengo paragrafoaren 2. zenbakian ezarritako gutxieneko zerbitzu gehigarrien helburua da eskola-umeak babestea eta haien segurtasuna bermatzea, eta horrek, printzipioz, ez du kausa-ondoriorik grebaren iraupenarekin".

Azkenik, eta bereziki unibertsitate-irakaskuntzari dagokionez, bide jurisdikzionaletan nabarmendu denez, azpimarratu behar da deialdian jasotako greba-eguna ikasleen ebaluazioak, probak eta azterketak egiteko garaian izan daitekeela, zeinak ikasketa-egutegietan jakinarazi baitzaizkie. Kasu hauetan, gutxieneko zerbitzuak finkatzeko premia ez da zehaztuko jarduera akademikoen, irakaskuntzako eta ikerketakoen edukien arabera, ezta garatu beharko diren moduen arabera ere, baizik eta hezkuntzarako eskubidea kaltetuta gera ez dadin eten edo



gelditu ezin den jarduera horien zatiaren arabera; zati horren barruan biltzen dira, esate baterako, ikasturtearen azken ebaluazioko probak, jurisprudentziak adierazi duenaren arabera, besteak beste Auzitegi Gorenaren 2001eko urriaren 16ko epaian.

GARRAIO-SEKTOREA

Askatasunez zirkulatzeko eskubidea (Konstituzioaren 19. artikulua) oinarria da oinarrizko beste zenbait eskubide baliatzeko, hala nola: bizia, osotasun fisikoa eta osasuna babesteko beharrezkoa den laguntza jasotzeko eskubidea edo hezkuntza-jarduerak edo lana bera garatzeko zentroetara joatekoa. Izan ere, halako eskubideak ezin dira babesik gabe utzi, greba eskubidea baliatzea zilegi bada ere. Arrazoi horrengatik, aintzat hartu behar da bidaiarien garraioa gizartearentzat ezinbesteko zerbitzua dela, zerbitzu horiek guztiz gelditzeak leku batetik bestera mugitzeko erabateko ezintasuna eragingo lukeelako herritar askorentzat, eta horrek adierazitako zirkulazio-askatasunerako eskubidea urratuko luke.

Horrez gain, kontuan hartu behar da bidaiarien garraio-linea batzuk bakarrak direla eta bestelako garraio-aukerarik ez dutela, hala nola Lurreko Garraioaren Antolamenduari buruzko uztailaren 30eko 16/1987 Legearen 72. artikuluan xedaturikoaren arabera ezarritakoak. Halaber, kontuan hartu behar da linea horien erabiltzailearen profila honako hau dela: ibilgailu partikularrik ez duen pertsona, adineko pertsona edo desgaitasuna duena, edo zonalde isolatuetan bizi dena eta bestelako garraio bideetara iristeko baliabide gutxi dituen.

Bestalde, herri-administrazioek bidaiak egiteko garraio publikoaren erabilera sustatu dute herritarren artean, horretarako sektorea baliabide berriekin hornituz (metroa, tranbia, eta abar) eta jada ezarritako baliabideen (trena eta autobusa, nagusiki) lineak eta zerbitzuak sustatuz, horrela garapen egokiagoa eta jasangarriagoa lortzeko, eta hiriarteko trafikoaren kolapsoa saihesteko, batez ere eguneko trafikoaren kasuan, aukera bakarra garraio bide pribatuaren erabilera izan ez zedin. Jarduera horri esker, zerbitzu publiko horiek erabiltzeko eskaria nabarmen handitu da.

Zirkunstantzia horrek, beste faktore batzuekin batera, ezarri beharreko gutxieneko zerbitzuak %30ean finkatzea dakar. Hona hemen faktore horietako batzuk: hiru Lurralde Historikoetako hiriburuen eta udalerrri mugakideen (horiek guztiak biztanle askorekin) arteko komunikazioa bermatzea, udalerrri mugakideen arteko lotura modu eksklusiboan eta lanerako, hezkuntzarako, osasunerako eta abarrerako elkarrekiko mendekotasun sozioekonomiko handiarekin, eta bidaiarien garraio-zerbitzu edo garraio-linea batzuk herritarren bidaietarako ezinbestekoak edo bakarrak izatea –bestelako aukerarik ez izategatik, edo kudeatzen dituen beste garraio bide batzuekiko aukera izategatik–. Era berean, ezinbestekotzat jo behar dira garraio bideen koordinazioko eta kontroleko zerbitzuak, horien segurtasun-arloko zereginak, instalazioenak nahiz bertan dauden pertsonenak eta larrialdi-egoeretan jarduteak greba-egoera batean bermatu behar diren oinarrizko eskubideekin lotura dutelako. Zerbitzu horiek gutxieneko langile kopuru batekin eman beharko dira.



Horretaz aparte, greba hasi orduko zenbait zerbitzu hasita egongo dira, eta horrek – gutxieneko zerbitzurik jarri ezean– zerbitzu horiek finkatutako orduan berehala geldiaraztea ekarriko luke, eta bukatu gabe utziko lieke beren ibilbidea une horretan zerbitzuok erabiltzen ari direnei. Halaber, lanuztea bukatzen denean, hau da, zerbitzua berrabiarazterakoan, aipatutako geldiarazte horrek zailago bihurtuko luke garraio bideen erritmoak eta maiztasunak berreskuratzea eta horrek, era berean, grebaren eraginak deituta dagoen denbora-mugatik harago luzatzea ekar lezake.

Era berean, bide-zirkulazioa bermatu behar da ordainpeko autobide eta tuneletan, eta horretarako, ordainlekuetako igarobidea bermatu behar da, bide automatikoen nahiz eskuzko bideen elementu erregulatzailerik gisa, langileen gutxieneko presentziarekin, joan-etorrien ondorioz sor daitezkeen arrisku-egoeren intentsitatearen arabera modulatzeko, eta zuzenean segurtasunari lotuta daudenez egon daitezkeen gorabeherak kontrolatu eta mantentzeko, laguntzeko eta seinalatzeko; hori dela medio, horiek guztiak ezinbestekotzat hartu behar dira.

Bestalde, ibilgailuentzako erregaia hornitzea gaur egun ezinbestekoa da pertsonen eta salgaien zirkulazio askea ahalbidetzeko, baita gizartean beharrezkoak diren zerbitzuak eskaintzeko ere, hala nola: anbulantziak, suhiltzaileak, babes zibila eta Larrialdikotzat jotzen diren zerbitzu guztiekin lotutakoak, izan ere, pertsonen bizia, osasuna eta osotasun fisikoa nahiz morala bermatzen eta zaintzen baitute.

ENERGIAREN ETA TELEKOMUNIKAZIOEN SEKTOREA

Halaber, energia elektrikoa eta gasa produzitu eta banatzen eta ura arazten eta banatzen duten enpresak eta erakundeak ezinbestekotzat jo behar dira, oinarritzko eta/edo premia larriko ondasunak eta zerbitzuak sortzen dituzten azpiegiturei eta produkzio-prozesuei ekarpen erabakigarria egiten dietelako. Bada, enpresa horietako langileek greba eginez gero, baliteke pertsonen osasunari ezin konponduzko kalteak eragitea; hortaz, hain beharrezkoak ditugun ondasun horien hornikuntzak bermatuta egon beharko du grebaldian.

Euskal Autonomia Erkidegoan diharduten telekomunikazio-enpresei dagokienez, ematen duten zerbitzuaren zati baten ezinbestekotasuna Telekomunikazioei buruzko azaroaren 3ko 32/2003 Lege Orokorrean ezarrita dago, zerbitzu horrek komunikazio pertsonal, profesional eta komertzialetan duen eraginean oinarrituta. Era berean, Internetarako sarbide funtzionala bermatu behar da, Europar Batasunaren Zerbitzu Unibertsalari buruzko Zuzentarauan ezarritakoari jarraikiz (2002ko otsailaren 22an onartutako zuzentaru hori Telekomunikazioei buruzko Lege Orokorreko 22. artikulua bitartez txertatu zen gure ordenamendu juridikoan).



EUSKAL IRRATI TELEBISTA / RADIO TELEVISIÓN VASCA (EITB)

Ente publiko honek eskaintzen duen zerbitzuak, ente publiko hori sortzeari buruzko maiatzaren 20ko 5/1982 legearen arabera, ezinbesteko zerbitzu publikoaren izaera du. Aztergai dugun kasuan, eta EITBk edozein hedabideren bitartez egiazko informazioa komunikatu eta emititzeko funtsezko eskubideen erabilera azpimarratzen duenez, Konstituzioaren 20.1.d) artikuluan ezarrita dagoenaren arabera, eduki instituzionala, politikoa edo soziala duten albistegiak ez badira emititzen, herritarren eskubide eta askatasunen erabilera mugatuko litzateke.

ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

Herritarren eta administrazioaren arteko harremanei dagokienez, kontuan izan behar da horietako asko araututa daudela. Arau horietan ezarritako epeak oso garrantzizkoak dira herritarrek euren interesak defenda ditzaten, baita benetako babes judizialerako eskubidea ere. Hain zuzen ere, idazki, dokumentu nahiz espediente jakin bat administrazioan dagokion epearen barruan sartu dela egiaztatzen dute administrazioaren erregistroek, zeren, bestela, gerta baitaiteke herritarren eskubide batzuk urratzea. Horrela, bada, autonomia-erkidegoan egun batean zehar ordu-tarte zehatz batzuetarako edo egun oso baterako greba orokorraren deialdia egiteak ez du esan nahi egun hori edo ordu horiek baliogabeak direnik. Hortaz, administrazio publikoak gutxienez dokumentuak erregistratzeko zerbitzua irekita eduki beharko du, herritarren oinarrizko eskubideak bete ahal izateko.

Ildo beretik, kontuan izan behar da EJIE Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarteak bere informatika-zerbitzuak ematen dizkiela Eusko Jaurlaritzari eta erakunde guztiei, eta zerbitzu horietako batzuk ezinbestekoak direla. Horrela, bada, Ustiapen Zerbitzua ezinbestekotzat jotzen da haren jarduerak Jaurlaritzaren informazio-sistemak erabilgarri daudela bermatzen duelako, urteko 365 egunetan eta eguneko 24 orduetan, eta erabiltzaileei aukera ematen dielako edozein lekutatik edozein sistema informatikotara sartzeko. Horrez gain, azpiegituren eta aplikatiboen etengabeko monitorizazio-lanak egiten ditu. Gutxieneko zerbitzuak ezarri ezean, zerbitzu orokorra galdu liteke, eta horren ondorioz ezinezkoa izan liteke bai informatika-tresnak bai datu-biltegiratzea erabiltzea, baita PLATEA plataforma ere, zeinaren bidez bideratzen baitira gobernuak Interneten duen presentzia, izapidetze elektronikoa, dokumentuen kudeaketa eta gobernuaren eta kanpo-erakundearen arteko integrazio-prozesuak. Halaber, gorabeheraren bat izanez gero, informatika-sistema batek bermatzen du gobernuaren eraikinetarako sarbidea, bai funtzionarioena bai herritarrena; eta gai horri buruz azpimarratu behar da sistemak huts eginez gero, erregistrorako ezarritako gutxieneko zerbitzuak eraginik gabe gera litezkeela, aurreko paragrafoan azaldu den bezala. Azkenik, ezinbestekoa da, jakina, babeskopia egitea, egunean zehar landutako informazioa geroago inolako galerarik gabe berreskuratzea ahal izateko.



Jurisdikzio-organoen jarduerak, konstituzioaren lehen mailakoak izaki, bermatu beharrekoak diren oinarrizko eskubide garrantzitsu jakin batzuei eragiten die. Horren ondorioz, jarduera hori ezinbestekotzat jo behar da greba-kasuetan, eta ez bakarrik oinarrizko zenbait eskubideri –askatasun-eskubideari adibidez– eragiten dielako bereziki, baita ere jurisdikziora biltzea eta benetako babes judiziala lortzea ere kolokan jar dezakeelako, EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2006ko urriaren 25eko 771. zenbakiko epaiak ezarri duen bezala.

2006ko urriaren 25eko epai horrek greba izanez gero ezarri beharreko gutxieneko zerbitzuak –langile-hornidurarekin zerikusia dutenak barnean direla– zehazteko irizpideak finkatzen ditu. Besteak beste, honako hauek dira: epaitegietan eta Auzitegi Medikuntzako Euskal Institutuan guardia-eginkizunetan diharduten langileen %100 hornitzea; dokumentuak jaso eta erregistratzea; premiazkotzat jotako jardunak edo Legeak aldez aurretik ezarritako epemuga egun horretan dutenak, baldin eta ez-betetze horrek eskubideak galdu edo kaltetzea ekar badezake berekin; kautelazko, behin-behineko eta betearazpeneko neurriei eragiten dietenak, baldin eta, ondorengo egunetarako utziz gero, eraginkortasuna gal badezakete edo norbait espetxetik ateratzeko eguna atzera badezakete; eta greba-egunerako ezarritako epaiketa, agerraldi eta antzekoak, baldin eta, etenez gero, kalte larriak eragin baditzakete, ondorenean egiteko zailtasunak direla-eta, edota etenaldi horrek eragin litzakeen neurrigabeko kalteak direla-eta.

Gutxieneko zerbitzuak ezartzerakoan, kontuan hartu behar dira, halaber, barneratze-neurriak betearazten diharduten gazte justiziako zentroak; halakoetan, jaiegun bateko langileek jardun behar dute.

Arlo horretan, bereziki aipagarria da Zumarragako Ibaiondo zentroa. Hezkuntza-zentro hori, izan ere, jurisdikzio-bidean hartutako erabaki baten bidez eskubideak murriztuta dituzten adingabeei zuzenduta dago, eta, horregatik, tratamenduak banakakoa izan behar du. Dituen ezaugarri bereziengatik, gobernu-agintaritzak neurri egokiak hartu behar ditu, eskaintzen duen ezinbesteko hezkuntza- eta egoitza-zerbitzu publikoa mantentzen dela ziurtatzeko, bai eta instalazioen, langileen eta adingabeen euren segurtasuna ere. Era berean, egoiliarren bizitzeko eskubidea eta osasuna, hezkuntza, segurtasuna eta osotasuna izateko eskubidea ziurtatu behar dira.

Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoan dauden espetxeetan, orain dela gutxi eskualdatu direnetan, gobernu-agintaritzak beharrezko neurriak hartu behar ditu espetxeetan ematen den komunitatearentzat funtsezkoa den zerbitzu publikoari eusten zaiola ziurtatzeko, eta, horretarako, haien etengabeko jarduera bermatu behar da, bai eta instalazioen, langileen eta espetxeratuen segurtasuna, eta haien bizitzarako, osasunerako eta segurtasunerako eta osotasunerako eskubidea ere.



Espetxeen eremu horretan, funtsezko zerbitzutzat hartzen dira honako hauek: Establezimenduen Zuzendaritza; Araubideko Bulegoak, baldintzapeko eta behin betiko askatasunei, barneratuen diru-sarrerei eta baliabideen izapidetzeari buruzkoak; Administrazioa, barneratuak elikatzeari, astero pekulioa ordaintzeari eta jantzien gutxieneko hornidura emateari buruzkoak; arauzko gutxienekoak, komunikazioei, bisitei eta paketeak jasotzeari dagokienez; Establezimenduen segurtasunari eta ordenari buruzkoak; tratamenduko gradu-sailkapenak eta -berrikuspenak arauzko epeetan egiteko beharrezkoak direnak; osasun-laguntzako guztiak; eta tailerrak zaintzekoak.

Beste atal batzuetan adierazi den bezala, sektoreko grebak hartu dira kontuan, eta hemen aipa daitezke Justizia Administrazioari eragin ziona (2023ko maiatzaren 2ko Agindua) eta Eusko Jaurlaritzan deitutako greba bati buruzko 2023ko apirilaren 11ko Agindua.

Deitutako grebaren antzeko iraupena duten greba orokorren kasuan, deialdi honen antzeko eremu funtzionalei eragiten bazaie (larrialdiak, garraioak, herritarrekiko harremanak, Justizia Administrazioa...), hainbat agindu eman dira, hala nola 2017ko martxoaren 7koa, 2018ko otsailaren 27ko Agindua (2018ko martxoaren 7ko Aginduak aldatua), 2019ko otsailaren 28ko Agindua, 2019ko irailaren 24ko Agindua eta 2020ko urtarrilaren 20ko Agindua. Era berean, beste atal batzuetan adierazi den bezala, sektoreko grebak hartu dira kontuan, eta hemen Justizia Administrazioari eragin ziona aipa daiteke, 2023ko maiatzaren 2ko Agindua. Horien guztien edukia kontuan hartu da agindu hau egiteko.

Horiek guztiak, deialdi honetako gutxieneko zerbitzuak finkatzeko aurrekari lotesleak izan gabe – Konstituzioaren doktrinak galarazitako inferentzia –, kontuan hartu beharreko aurrekariak dira, haren aplikazioan ikusitako gorabehera eta gabezien arabera, agindu honek babestu nahi dituen Konstituzioaren arabera babes daitezkeen eskubide eta ondasunei buruzko gutxieneko zerbitzuek – grebarena barne – ezarritako babesgarrietarako.

Inguruabar horiek direla eta, gobernu-agintaritzak agindu honetan zehazten diren gutxieneko zerbitzuak ezarri behar ditu, gatazkan dauden eskubideen funtsezko edukia bateragarri egiteko.

Gai horri buruzko eskumen eksklusiboa Gobernu Agintaritzari esleitzearen helburua da greba-eskubidea baliatzeak izan behar dituen mugak, funtsezko zerbitzu jakin batzuei eustearren, oinarrizko beste eskubide batzuk asetzera bideratuta dauden heinean, Zuzenbidearen arabera bakarrik ezarri ahal izatea, eta gobernu-erantzukizuna eta -ahala duenak bakarrik.

Horregatik, Lan Harremanei buruzko martxoaren 4ko 17/1977 Errege Lege Dekretuaren 10.2 artikulua aipatzen duen prozedura bideratu da.



Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 7/2021 Dekretuaren 3.2 artikulua titularrari esleitzen dizkio Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien jardun-arloak finkatzen dituen irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren bidez lan-arloko legeria betearaztearen arloan bere gain hartutako eskumenak, eta j) atalean jasotzen du, zehazki, zerbitzu publikoak edo premia biziko eta atzeraezineko zerbitzuak emateko ardura duten enpresa, entitate eta erakundeei eragiten dieten greba-eskubidea erabiliz gero, komunitatearen funtsezko zerbitzuei eutsiko zaiela ziurtatzeko behar diren bermeak ezartzeko eskumena, ekainaren 11ko 139/1996 Dekretuaren bidez eskuordetua.

Horregatik guztiagatik, bigarren lehendakariordea eta Lan eta Enplegu sailburua, Eusko Jaurlaritzak eskuordetuta,

EBAZTEN DU:

Lehenengoa. - 2023ko azaroaren 30ean ELA, LAB, STEILAS, ESK, EHNE, ETXALDE eta CGT sindikatuek Euskal Autonomia Erkidegoko herritarrei deitu dieten greba-eskubidea lanaldi osoan gauzatzeko, hurrengo ataletan ezartzen diren funtsezko prestazioak eta horien ondoriozko gutxieneko zerbitzuak mantendu beharko dira.

Bigarrena. - Osasun-sektorea.

a) Osasun-zerbitzuak, publikoak zein pribatuak, emateaz arduratzen diren enpresek eta erakundek honako hauek mantenduko dituzte:

1. Ospitaleetan, jaiegunetako ohiko langileekin — alta medikoak eman ahal izango dira — honako zerbitzu hauek: larrialdiak, sukaldea, janari-banaketa, zerbitzu horien funtzionamendurako behar-beharrezkoa den garbiketa eta ospitaleratutako gaixoei behar duten arreta. Dialisi-prozesuak eta tratamendu onkologiko lehenetsiak eta geroragarriak ere mantenduko dira.
2. Lehen mailako arretan, deitutako greba-egunean lan egin behar duten osasun-zentroetako langileekin, larunbat batean zerbitzu horiek ematen dituzten langileen kopuruak emandako larunbat bateko zerbitzuak.
3. Larrialdi-zerbitzuen eta EAGen % 100.
4. Arabako ESlaren, Donostialdeko ESlaren, Ezkerraldea-Enkarterri-Gurutzetako ESlaren, Bilbo-Basurtu ESlaren, Uribeko ESlaren, Debabarreneko ESlaren, Bidasoako ESlaren, Tolosaldeko ESlaren, Barakaldo-Sestaoko ESlaren eta Barrualde-Galdakao ESlaren call center zerbitzuetan, zerbitzu horiek eman ohi dituzten langileen % 50.

b) Garraio sanitarioaren sektoreko enpresek honako hauek mantenduko dituzte:

1. Larrialdi-zerbitzuak.

Premiazkotzat joko da Koordinazio Zentro batek eskatzen duen garraio sanitarioa, edo mediku-ziurtagiriaren bidez egiaztatzen dena.

2. Hemodialisi-tratamenduetarako, tratamendu onkologikoetarako eta eguneko ospitalerako programatutako garraioa.

3. Ospitaleen arteko premiazko garraioa, baldin eta:

- mediku-ziurtagiriaren bidez egiaztatzen denean.
- ohatila erabili behar denean.

4. Esku-ohesa behar duten ospitaleko altek eragindako garraioa, mediku-ziurtagiriaren bidez egiaztatzen bada.

Zerbitzu horiek guztiak estaltzeko aurreikusitako langileen % 100ek beteko ditu.

c) Farmaziak: guardia-zerbitzua mantenduko da.

Hirugarrena. - Administrazio publikoetako bide-segurtasuneko zerbitzuek eta larrialdiei aurre egiteko zerbitzuek honako hauek mantenduko dituzte:

a) SOS-DEIAK 1-1-2 zerbitzuen %100, txanda bakoitzean zerbitzu horretan egon ohi diren langileek emanda.

b) Gainerako zerbitzuak (larrialdiei aurre egiteko eta meteorologiako zerbitzuak, suhiltzaileak, larrialdietako igorleak eta komunikazioak, errepideen mantentzea –neguko bide-plana barne– eta urtegi, ibai eta mendietako larrialdi-zerbitzua, Babes Zibila, Euskadiko Trafikoa Kudeatzeko Zentroa eta abar) urte-sasoi honetako jaiegun batean izan ohi dituzten langileekin egingo dira. Segurtasun Sailaren komunikazio- eta informatika-arloan, operazio- eta monitorizazio-teknikari bat arituko da txandako.

Laugarrena. - Gizarte-zerbitzu sektorea.

a) Adinekoentzako egoitzetan, edota mendekotasun- edo desgaitasun-mailaren bat duten pertsonentzakoetan, mantenduko da:

1. Arreta zuzena gauzatzen duten gerokultoreen edo parekatuen %50 izango da lanean, bazkariaren ohiko ordutegian eta 08:00etatik 10:30era eta 20:00etatik 22:00etara izan ezik, orduan %10 gehituko baita. Soil-soilik erabiltzaileen % 70ek baino gehiagok II. eta III. graduako mendekotasun aitortua duten zentroetan, gerokultoreen eta parekatuen ehuneko % 70koa izango da.

Gaueko txandan, zuzeneko arretako langileen %100ek lan egin beharko du, baina «zuzeneko arreta» moduan zehaztutako lanak baino ez dituzte egingo.

2. Osasun-langileak: OLT/EUDen %50ek lan egingo du.
3. Sukaldeko langileak: Langileen %50ek lan egingo du. Greban, sukaldeko langileek elikagaiak prestatu beharko dituzte, baina ez dute egin beharko bestelako lanik.
4. Garbitzaileak: Langileen %20k lan egingo du. Pertsonen osasunerako edo segurtasunerako berehalako arrisku larria izan dezaketen arloetan baino ez dira egingo garbiketa-lanak.
5. Ateko-harrerako langileak. Egoitzetako sarbide nagusiko atea zaintzeko eta kontrolatzeko bakarrik emango da zerbitzu hori. Pertsona bakarra egingo da txanda bakoitzean, zerbitzu hori emateko ohiko ordutegian.

b) Eguneko zentroetan, adinekoentzako etxebizitza komunitarioetan eta hezkuntza bereziko zentroetan, bai eta mendekotasun- edo desgaitasun-mailaren bat duten pertsonak barnean hartzen dituzten bestelakoetan ere,

1. Zuzeneko arreta ematen duten langileen %50arekin, gosaria, bazkaria eta afaria emateko ohiko ordutegian izan ezik; azken kasu horietan, ehuneko hori %10 handituko da.
2. Era berean, gutxieneko zerbitzu gisa ezartzen da langile sanitarioen eta sukaldeko langileen %50. %50 hori pertsona bat baino gutxiago bada, pertsona horrek zerbitzu horiek egin beharko ditu. Gaueko txandan, zuzeneko arretako langileen %100ek lan egin beharko du, baina «zuzeneko arreta» moduan zehaztutako lanak baino ez dituzte egingo.
3. Era berean, eguneko zentroetara joaten diren mendekotasuna duten pertsonen garraio berezia bermatuko da, zentro horietara joateko desplazamenduak (aurreko paragrafoan aipatutako ezinbesteko zerbitzuak jaso ahal izateko) ezin badira bestelako garraiobideen bitartez egin, eta/edo horiek ez badaude haien mugikortasun-gaitasunera egokituta.

c) Telelaguntzaren sektorean, jarraian adierazten diren funtsezkotzat jotzen diren zereginak egingo direla bermatuko da, beherago adierazten diren langileekin;

1. Sartzen diren dei guztiak jasotzea, dei horietako edozeinek larrialdi bati erantzutea ekar dezakeelako, eta larrialdiekin edo gizarte-premiekin zerikusia duten dei guztiak egitea. Bestela, erabiltzaileen bitzita edo osotasun fisikoa arriskuan jarriko luke.
2. Ezinbestekotzat jotzen diren agendak ematea.
3. Osasun Kontseilura bideratzea.

4. Unitate mugikorrek mobilizatzea, baldin eta deiaren ondorioz ererikoa gertatu bada eta erabiltzailearen etxera joan behar badute laguntzera.
5. Ikuskatzailea egotea alarmak hartzeko eta larrialdiei aurre egiteko gutxieneko zerbitzuak mantentzeko zeregin eskusiboetarako.
6. Paziente arriskutsutzat jotzen diren erabiltzaileen deiak kudeatzea.
7. Presako altak izapidetzea.

Jarduera horiek langile hauek egingo dituzte:

1. Teleoperadoreak: 8 pertsona goizeko txandan, 8 pertsona arratsaldeko txandan eta 3 pertsona gaueko txandan.
2. Arreta Zentroko teleoperadoreen gainbegiralea: pertsona 1 goizeko txandan eta pertsona 1 arratsaldeko txandan.
3. Unitate Mugikorreko teknikariak:
 - Bilbo: 3 pertsona goizeko txandan eta 3 pertsona arratsaldeko txandan.
 - Donostia: pertsona 1 goizeko txandan eta pertsona 1 arratsaldeko txandan.
4. TUMeko gainbegirale teknikoa: pertsona 1 goizeko txandan eta pertsona 1 arratsaldeko txandan.
5. CI- Integrazio-koordinatzailea: pertsona 1 bere ohiko ordutegian, eta artikulua honen 3. paragrafoan adierazitako lanak egiteko behar den denboran bakarrik.
6. Ibilbideetako langileak: pertsona 1 bere ohiko ordutegian, eta artikulua honetako 3. paragrafoan adierazitako lanak egiteko behar den denboran bakarrik.

Gutxieneko zerbitzu horiek betetzeko telelaguntzako langileen eginkizunak honako hauek izango lirarteke kategoria bakoitzerako:

- TLO-Teleoperadoreak.
 - Dei guztiak jasotzea (telefonogunetik eta alarmak domina sakatuz) eta larrialdiei erantzutea.
 - Larrialdiekin edo gizarte-premiekin zerikusia duten dei guztiak egitea.
 - Osasun Kontseilura bideratzea edo ezinbestekotzat jotako agendak igortzea (gogorarazpenak).
 - Ondoren, jarraipena egiteko deia egingo zaio pertsonari, larrialdi-zerbitzuek erabiltzaileari arreta osoa eman diotela egiaztatzeko, haren egoeraren berri emateko eta gertakariari buruzko informazioa erregistratzeko.
- Arreta-zentroko teleoperadoreen gainbegiralea.

- Alarmak hartzeko eta larrialdi-egoerei arreta emateko zerbitzuaren gutxieneko zerbitzuak mantentzeko zeregin eskusiboak.
 - TUM- Unitate Mugikorreko teknikariak.
 - Bizkaian, Gipuzkoan eta Araban izandako lesiorik gabeko erorikoez arduratzea.
 - Premiazko matxurak eta larrialdi-egoerak artatzea.
 - Gizarte Zerbitzuek "premiatzko altatzat" jotako pertsonentzako zerbitzuan alta emateko instalazioak.
 - TUMeko gainbegirale teknikoak.
 - Alarmak hartzeko eta larrialdiei aurre egiteko zerbitzua mantentzeko zeregin eskusiboak.
 - IK - Integrazioko koordinatzaileak.
 - Alta urgentzat jotzen diren pertsonen zerbitzura alde aurretik alta emanda egotea.
 - Aldizkako jarraipena egiteko agenda-deiak N4 pertsoneri, hau da, suizidio-arriskua eta tratu txarrak jasateko arriskua dutenei.
 - Ibilbideetako langileak:
 - Gizarte Langileen Premiazko Alten (CIS) eta instalazioko teknikarien etxez etxeko bisitak ituntzeko zeregin eskusiboak.
- d) Etxeko laguntzaren sektorean, II. eta III. mendetasun-gradua duten pertsoneri soilik emango zaizkie honako zerbitzu hauek:
1. Janari-zerbitzua. Ahal den neurrian, aurrez prestatutako edo aurrez prestatutako elikagaietara joan beharko da.
 2. Honako zerbitzu hauek egingo dira: eguneroko higiene pertsonala, komunaren erabilera, maskuriko eta hesteetako ezabapena, jaikitze eta oheratzeko laguntza, janzteko laguntza eta sendagaiak eta elikagaiak hartzeko gainbegiratzea.
 3. Erabiltzaileei laguntzeko lanak egingo dira, alde aurretik hitzordua hitzartuta duten eta atzeratu ezin diren osasun-zentroetara joateko.
 4. Era berean, eguneko zentroetara lagunduko da.
 5. Ohean dauden pertsonentzat, beharrezko jarrera-aldaketak.
- e) Adingabeen egoitzetan, ikastetxeetan eta etxebizitza komunitarioetan, bai eta esku-hartze sozialeko zentroetan ere, jaiegun bati dagozkion zerbitzuak mantenduko dira.

Bosgarrena. - Hezkuntza-sektorea.

Irakaskuntza-zentroetan, ondoren adieraziko diren zerbitzuak emango dira, honako langile hauekin:

- a. Unibertsitateaz kanpoko hezkuntza arautua, publikoa, itunpekoa eta pribatua: Zentroetarako sarrera-kontrola bermatzeko, zentro publiko eta lotutako eraikin bakoitzeko: zuzendaritza-taldeko pertsona 1 eta mendekoen plantillako pertsona 1 goizeko txandarako eta beste bat arratsalderako.
- b. Haurreskolak Partzuergoa eta udal titulartasuneko haurtzaindegiak: Zentroetarako sarrera-kontrola bermatzeko, zentro eta lotutako eraikin bakoitzeko: koordinatzaile 1, edo hura ordezkaturako duen pertsona 1.

Babes-funtzioa babesteko, a) eta b) idatz-zatietan finkatutako zerbitzuei honako hauek gehituko zaizkie:

1. Irakasle bat hezkuntza-etapa bakoitzeko (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, DBH, Batxilergoa eta Lanbide Heziketa).
 2. Haur Hezkuntzako etapetan (Haurreskolak barne), 1. ziklokoetan zein 2. ziklokoetan, eta Lehen Hezkuntzako etapan, etapa bakoitzean matrikulatutako 100 ikasletik aurrera, irakasle bat gehituko da dagokion etapa bakoitzean. 200 ikasletik aurrera, beste irakasle bat eta horrela, hurrenez hurren, 100 ikasleko.
 3. Hezkuntza Bereziko ikastetxeetan edo hezkuntza bereziko gela egonkorretan, ikasgeletako ohiko langileen % 50.
- c. Euskal Herriko Unibertsitatea:
1. Zentroetarako eta horiei lotutako eraikin bakoitzerako sarrera-kontrola bermatzeko: Zentro bakoitzeko eta/edo lotutako eraikin bakoitzeko, atezainen plantillako pertsona 1 goizeko txandarako eta beste bat arratsalderako.
 2. Egutegi akademikoan planifikatutako azterketak –azken ebaluazioaren maila dutenak– egiteko: azterketa egiteaz arduratuko den irakasle 1.
- d. MUSIKENE Goi Mailako Musika Ikastegia eta udal-titulartasuneko musika-eskolak: Zentroetarako eta haiei lotutako eraikin bakoitzerako sarrera-kontrola bermatzeko, atezainen plantillako pertsona 1, lotutako hiru eraikinetako bakoitzerako eta goizeko eta arratsaldeko txanda bakoitzerako.
- e. Hizkuntza Eskola Ofizialak:
1. Zentroetarako eta horiei lotutako eraikin bakoitzerako sarrera-kontrola bermatzeko: Zentro bakoitzeko eta/edo lotutako eraikin bakoitzeko, atezainen plantillako pertsona 1 goizeko txandarako eta beste bat arratsalderako.
 2. Egutegi akademikoan planifikatutako azterketak –azken ebaluazioaren maila dutenak– egiteko: azterketa egiteaz arduratuko den irakasle 1.

Seigarrena. - Garraioa.

- a) Autobusek, trenak, tranbiek, funikularrek eta ibaiko garraioek greba-deialdian zehaztutako ordu-tarteetan programatuta dituzten ohiko zerbitzuen % 30 mantenduko dute. Ehuneko hori banatzerakoan, lehentasuna emango zaie ordezkari garraio-zerbitzurik ez duten edo osasun-zentroetara daramaten lineei. Halaber, estaldura berezia emango zaie lantokietako sarrera- eta irteera-ordutegiei. Greba hasi aurreko orduetan hasten diren zerbitzuek, horrelakorik egonez gero, ohiko ibilbidea amaitu arte jarraitu beharko dute. Era berean, aginteko, koordinazioko, kontroleko eta segurtasuneko zerbitzuak mantendu behar dira garraiobideetan, zerbitzu horietako lanpostu bakoitzeko eta txanda bakoitzeko pertsona batekin.
- b) Ordainpeko autobide eta tuneletan, azpiegitura segurtasun-baldintza egokietan eta jaiegunetako langileekin funtzionamenduan egongo dela bermatuko da. Ordainleku-zerbitzua langileen %30ekin emango da puntako orduetan (06:30etik 09:30era eta 17:30etik 20:30era) eta langileen % 15ekin gainerako ordu-tarteetan. Ehuneko horiek kasuren batean pertsona bat baino gutxiago badira, pertsona horrek zerbitzu horiek egin beharko ditu.
- c) Errepideen mantentze-zerbitzuak jaiegun bati dagozkion langile eta zerbitzuekin lan egingo du.
- d) EAEko gasolina-zerbitzuguneen %20aren funtzionamendua bermatuko da. Lurralde bakoitzeko sektoreko patronalak erabakiko du zein izango diren, sektorean ordezkatuta dauden erakunde sindikalei entzun ondoren.

Zazpigarrena. - Energia, Gasa, Ura eta Telekomunikazioak Produzitu eta Hornitzea.

- a) Energia elektrikoa produzitu eta hornitzeaz, gasa produzitu eta hornitzeaz eta ura araztu eta hornitzeaz arduratzen diren enpresek eta organismoek zerbitzua bermatuko dute, jaiegun bati dagozkion langile-kopuruarekin.
- b) Telekomunikazio-enpresetan, mantentze-lanak egiteko, jaiegunetan langile-talde horretan lan egingo luketen langileek lan egingo dute.

Zortzigarrena. - Sektore publikoa

- a) Administrazio publikoak. Hiru lurralde historikoetako hiriburuetan dokumentuak erregistratzeko zerbitzuek ere zerbitzua eman beharko dute, ZUZENEAN zerbitzuaren bidez, egoitza hauetan: Araba: Ramiro de Maeztu kalea 10, Vitoria-Gasteiz; eta Bizkaian eta Gipuzkoan Eusko Jaurlaritzak dituen lurralde-ordezkaritzetan: On Diego Lopez Haroko Kale Nagusia 85, Bilbao, eta Andia kalea 13, Donostia. Gutxienez langile batek lan egingo du egoitzako eta txandako.
- b) Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarteak, EJI. Jaiegunetako pertsonala egongo da, hau da, operadore bat txandako.

Bederatzigarrena. - Justizia Administrazioa.

a) Honako zerbitzu hauek mantenduko dira, agindu honen **eranskinean** zehaztutako langileekin:

1. Guardia-zerbitzuaren berezko jarduerak.
2. Dokumentuak jasotzea eta erregistratzea.
3. Premiazko gaiak organo judizialei banatzea.
4. Legeak ezarritako epe bat amaitzen den jarduera guztiak, baldin eta epe hori ez betetzeak eskubideak galtzea edo kaltetzea ekar badezake.
5. Hurrengo egunetarako utzi ezin diren kautelazko, behin-behineko eta betearazpeneko neurriak, eraginkortasuna galtzeko arrazoizko arriskurik gabe, edo pertsona bat aske uzteko atzerapena dakartenak.
6. Instrukzio-jarduera edo bultzada prozesaleko jarduera, aurreko zenbakian adierazitako inguruabarretako bat gertatzen denean.
7. Deitutako egintzak (epaiketak, agerraldiak, etab.), baldin eta eteteak kalte larria eragin badezake, geroago egiteko zailtasunengatik, edo eragin ditzakeen neurritz kanpoko kalteengatik, besteak beste:
 - Zigor-arloan, askatasunaz gabetutako pertsonekin egindako epaiketak edo apelazio-ikustaldiak, edo bi urtetik gorako askatasunaz gabetzeko zigorra eskatzea.
 - Arlo zibilean, Hartzekodunen Batzordeak, baterako prozeduretan, eta oso behin-behineko neurriak.
 - Gizarte-arloan, kaleratzeengatik epaiketak.
 - Ordena guztietan, oinarrizko eskubideak babesteko prozesuetan deitutako egintzak, horien etendurak azken ebazpena luzatzen duenean.
8. Epea amaitzen den lurperatze-lizentziak eta erregistro-inskripzioak.
9. Ontzien matxurekin, itsasoko protestekin eta pertsona errequisitorialen egoera legeztatzearekin lotutako jarduera.
10. Pertsonak barneratzea.



b) Espetxeetan, honako hauek berrmatuko dira: barneratuen osasun-laguntza; barneratuen elikadura; behin betiko eta baldintzapeko askatasunak eta barneratuen diru-sarrerak; arauzko gutxieneko komunikazioak eta bisitak; lantegien zaintza; eta establezimenduen segurtasuna eta ordena, larunbat bateko ohiko langileekin.

c) Gazte-justiziako ikastetxeak:

1. Zumarragako Ibaiondo ikastetxean, gutxieneko zerbitzuak jai-ostiralei dagozkienak izango dira.
2. Barneratze-neurriak betetzen dituzten gazte-justiziako gainerako ikastetxeetan, jaiegun bateko plantillari eutsiko zaio.

Hamargarrena. - Euskal Irrati Telebista / Radio Televisión Vasca (EITB)

Enpresan, berrmatu beharreko zerbitzuak soilik eguneroko albistegiak dira, haien ohiko ordutegian.

Hamaikagarrena.- Aipatutako zerbitzuak aldatu ahal izango dira, dagozkion **administrazio-izapideak** egin ondoren, grebaren iraupena kontuan hartuta, edo higienearrazoia, arrazoi biosanitarioak edo gerora sortutako beste ezohiko arrazoi batzuk direlaeta.

Hamabigarrena. – 1.- Grebarako eskubidea erabiltzen ez duten langileek emango dituzte lehentasunez aipatutako zerbitzuak.

2. Langileen ordezkari entzun ondoren, Enpresaren Zuzendaritzari dagokio gutxieneko zerbitzuak egin behar dituzten langileen izenen izendapena eta eginkizunen esleipena, txandaka, betiere aurreko artikuluan eta indarreko legerian jasotako mugak errespetatuz.

3. Justizia Administrazioaren eremuan, Justizia Administrazioako letraduei, fiskal buruei edo dagokion erakundeko buruari egokituko zaie funtsezko zerbitzuak beteko dituzten pertsonak izendatzea, eta, adierazi gabe dagoen kasuetan, gutxieneko zerbitzuak bete behar dituen funtzionarioak zein kidegokoa izan behar duen zehaztea, dagokion organo zehatzaren berezko zereginaren barruan dauden funtsezko zerbitzuak aintzat hartuta.

Hamahirugarrena.- Agindu honen aurreko apartatuetan jasotako gutxieneko zerbitzuak ezin izango dira nahasi zerbitzu horiek emateko izendatutako langileak aldatzeagatik edo geldiarazteagatik. Halakorik gertatuz gero, legez kontraktat joko dira, eta eragiten dituztenek erantzukizuna izango dute, eta erantzukizun hori indarrean dagoen ordenamendu juridikoaren



arabera eskatuko zaie.

Hamalauugarrena.- Aurreko paragrafoetan xedatutakoak ez du ekarriko inolako mugarik greba arautzen duen araudiak egoera horretan dauden langileei aitortzen dizkien eskubideetan, ez eta greba eragin duten eskaeren izapidetzeari eta ondorioei dagokienez ere.

Hamabosgarrena.- Agindu hau jakinarazten den egunean jarriko da indarrean.

Hamaseigarrena.- Jakinaraz bekie agindu hau interesdunei, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluan ezarritako moduan, eta adieraz bekie, halaber, agindu honek amaiera ematen diola administrazio-bideari, eta haren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezaketela Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko dagokion salan, jakinarazten den egunetik 2 hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoaren arabera.

Era berean, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123.eta 124.artikuluetan aurreikusitakoarekin bat etorriz, jakinaraz bedi, halaber, agindu honen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaiola Lan Agintaritzari, hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz,

**BIGARREN LEHENDAKARIORDEA ETA LAN ETA
ENPLEGU SAILBURUA**

BIGARREN LEHENDAKARIOREDE ETA LAN ETA ENPLEGUKO SAILBURUAREN 2023KO AZAROAREN 28KO AGINDUARENA ERANSKINA.

Guardia-eginkizunetan diharduten epaitegiek eta IMLeK izan ezik, horiek guardiazerbitzua egin ohi duten langile-zuzkidura osoa izan beharko baitute, grebarako eskubidea baliatzen ez duten langileek emango dituzte gutxieneko zerbitzu horiek, salbu eta langile horiekin ez badituzte betetzen jarraian zehazten diren gutxieneko baldintzak:

| | |
|--|---|
| AUZITEGI MEDIKUNTZAKO EUSKAL INSTITUTUA | |
| Auzitegi Medikuntzako Euskal Institutuko zuzendaritzaordea | Bi auzitegi-mediku eta Zuzendariordetzako funtzionario bat. |
| BULEGO FISKALA | |
| Fiskaltza Nagusiaren bulegoa | 2 funtzionario. |
| Barakaldoko Probintzia eta Lurralde Fiskaltzen Bulegoa. | Funtzionario bat bulegoko |
| ZULUP, EPAITEGIAK ETA AUZITEGIAK | |
| Justizia Auzitegi Nagusiko aretoak | Funtzionario bat aretoko |
| Gobernu Idazkaritza | Funtzionario bat |
| Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Probintzia Auzitegiak | Funtzionario bat sekzioko |
| Bizkaiko Probintzia Auzitegia | funtzionario bat baliabide penalak erregistratu, banatu eta izapidetzeko bulegoan |
| 1. Auzialdia | Funtzionario bat epaitegiko |
| 1. Instantzia Erregistro Zibilarekin 1. Auzialdia eta Instrukzioa, erregistro zibilarekin | Bi funtzionario (bat saileko) |
| Erregistro Zibil bakarra (Bilbo) | Bi funtzionario |
| Merkataritza | Funtzionario bat epaitegiko |
| 1. Auzialdia eta Instrukzioa | Funtzionario bat epaitegiko |



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

| | |
|--|--|
| Instrukzioa | Funtzionario bat epaitegiko |
| Emakumeen aurkako indarkeria | Funtzionario bat epaitegiko |
| Adingabeak | Funtzionario bat epaitegiko |
| Penala | Funtzionario bat bi Epaitegi bakoitzeko |
| Donostiako 4. penala eta Bilboko 7. penala | Funtzionario bat |
| Espetxe-zaintza | Funtzionario bat |
| Soziala | Funtzionario bat epaitegiko |
| Auzibidea -Administratiboa | Funtzionario bat epaitegiko |
| Bake epaitegiak | Funtzionario bat epaitegiko / taldeko |
| Bilboko Dekanotza | Erregistroan eta banaketan funtzionario bat Gobernu-bulegoan funtzionario bat Laguntza Kidegoko funtzionario bat SCACEn |
| ZERBITZU ERKIDE PROZESALAK | |
| Amurrio, Azpeitia eta Balmasedako Zerbitzu Erkide Orokorra | Funtzionario bat |
| Vitoria-Gasteiz, Barakaldo eta Donostiako Zerbitzu Erkide Orokorra | Funtzionario bat sekzioko SCACE sekzioko pertsona (SCACE sekzioa eta besteak, Barakaldoko kasuan) laguntza Judizialeko kidegokoa izan behar du |
| Exekuzio Zerbitzu Erkidea | Funtzionario bat sekzioko |
| Zerbitzu Erkide Orokorra eta Betearazpenekoa | Funtzionario bat sekzioko |